

BERRI TXARRAK, BESTERIK EZ

Oihane Retegi Arruti

Errenteria

2001eko irailaren 27a:

Ertzaintzako bi kotxe Donostiako kale erdian ziztu bizian dabilta, baita bi suhiltzaile eta lau anbulantzia ere, denak toki berera doazela dirudi. Arratsalde hartan euria da protagonista, eguna hasi duenetik ez du behin ere artetu. Kanean dabilen jendea kezkatuak galdezka ari da zer gertatu den, inork ez baitaki. Bat-batean ahoz aho zurrumurru bat zabaldu da: “E22 autobidean istripu larri bat gertatu da, kotxe eta kamioi baten artean. Hildakoak daude”.

Donostiako kalea apal-apal dago, euria kalearen barruraino sartu da, hiri osoa hodei erraldoi ilunez estalirik dago, urrunean tximistak entzuten dira.

5 minutu lehenago:

–Ez, berriro ez, oraingoan ere berandu, eta gainera, amaren oihuak entzun beharko ditut.– Leire ile beltzeko neskatxa korrika doa. Donostiako kale handian sartzea tokatzen zaio eta musika itzaltzea

erabakitzen du, *Gatibu* entzuten ari zen, talde hori baita gehien gustatzen zaiona, egunero entzuten duen taldea da, bere egunak alaitu egiten dituelako. Kale handian bi suhiltzaile ziztu bizian pasatzen ikusten ditu, begi handi berdeko neska harritu egiten da, baina ez da gelditzen, etxera garaiz iritsi behar du errieta ez jasotzeko.

–Ama! Aita! Etxean nago! Non zaudete?– Ez du erantzunik jasotzen, ez Nekaneren aldetik, ezta Luisen aldetik ere. Hamasei urteko neskak bere amari deitzea erabakitzen du, baina ez du hartzen, aitari deitzen saiatzen da, baina erantzun bera. Leire sukaldera doan ur bila, egarri handia baitu. Sukalderantz joaten ari den bitartean, bere gelako ate beltzean mezu hori bat nabaritu du, ate ilunera hurbiltzen hasi denean, zerbait idatzita dagoela ikusi eta irakurtzea erabakitzen du.

Kaixo, Leire! Amatxo eta biok amona Juanaren etxera joan gara. Izeba Idoiak esan digu gaizki dagoela eta seguruenik pare bat egun bere etxean gelditu beharko dugu sendatu arte. Amak esan dit hozkailuan utzi dizula janaria. Txintxo portatu eta egunero deitu ezazu, mesedez.

Muxu asko, Leire, maite zaitugu.

Begi berdeko neskari bere gurasoak etxean ez egoteak tristura ematen dio, beraiek baitira egunak alaitzen dizkioten pertsonak. Telebista piztea erabakitzen du, pixka bat entretenitzeko eta gurasoek esandakoa ahazteko. Telebistan istripua beste berririk ez dago, halako batean kazetari batek zera

esaten du: *“Istripu handia izan da, kamioi baten eta kotxe baten artean. Kamioia beste errepidera pasa da, irauli eta kotxea txikitu du. Kotxean zihoazen gizon-ema-kumeak ez dira bizirik atera, kamioi-gidaria zauritua gertatu da”*. Larruazal zuriko neska harritu egin da entzundako berriarekin eta are zurbilago jarri da. Izeba Idoiari deitu dio, lehenengo deian ez du erantzun, eta larritu egin da, baina bigarrenengan bai:

–Kaixo, izeba!

–Gurasoek esan didate etxean geratuko zarela amona sendatu bitartean.

–Bai, hala da izeba. Baina ez pentsa poza dudanik, gurasoak etxean egotea nahiago nuke. Egun hauetan ez dakit zer egingo dudan beraiek gabe.

–Arazorik baldin badaukazu, dei iezadazu.

–Izeba, ez zaitetz kezkatu, zerbait behar badut deituko dizut.

–Ados, baina deitu, ez zaitetz lotsatu. Agur!

–Izeba, izeba, izeb...

–Bai?

–Galdera bat, nire gurasoak iritsi dira amonaren etxera?

–Ez, oraindik ez, zergatik?

–Lehen deitu diedalako eta ez didatelako erantzun. Kezkatuta nago.

–Leire, ez zaitetz kezkatu, ni gaur ere amonarekin geratuko naiz, etortzean deituko dizut. Seguruenik bateria gabe geratu dira.

–Ados, izeba, eta eman bi muxu amonari nire partez.

–Bai, agur!

Neska lasai geratu da bere izebari deitu ondoren. Etxean bakarrik dagoenez, musika jarri du, etxe guztian zehar entzuten da “Aske matte” abestia.

Bat-batean, etxeko tinbrera jo du norbaitek. Neskatxak ez daki nor izan daitekeen eta aterantz joaten da. Atea irekitzean bi gizon heldu handik izugarrizko ikara eman diote, beraien kamisetetan Ertzaintza jartzen zuen eta, zalantzati, galdera bat egiten du neskak:

–Kaixo, zer nahi duzue?

–Zu zara Leire Otamendi? –galdetzen dio gizon zaharrenak.

–Bai, zerbait nahi duzue?

–Ez, tira gauza da gaur E22 autobidean istripu bat gertatu dela eta zure gurasoak...

–Ez, ez, ezin du iza... zerga... ni...– hitzak erdizka ateratzen zaizkio, badaki zer gertatu den. Neskak ezin izan ditu bere begietako ur-jauziak gelditu eta atea bat-batean itxi eta bere gelara joan da.

2 ordu beranduago.

Ez dago beste berririk Donostiako kale eta telebistetan. Jendeak ezin du sinetsi.

16 urteko neska batek bere buruaz beste egin du Donostian

Ertzaintzak jakinarazi du berria. Leire gaztearen gorpua hilik topatu dute irailaren 28ko goizaldean. Neskak bere etxeko 5. solairutik bota du bere burua.

Bezperan, E22 autobidean izandako istripuaren ondorioz, gurasoak galdu ondoren, bere eguneroko bizitzari aurre egiteko indarrrik ez zuela adierazten duen gutuna topatu dute neskaren etxean.
BERRIA, 2001eko irailaren 28a